

Ezpalak

JON TORNER

Gaitzerdi taldeak *Otsoko* obra aurkeztuko du Tarregako Kale Antzerki Jaialdian (Lleida). Ganso konpainiak, bestalde, *Renato* antzezlan eramango du, eta Beltz taldeak *Gris Mate* obra. Horiak dira hilaren 11tik 14ra bitartean egingo den jaialdian izango diren hiru euskal taldeak.

Carmen Mörsch Zuricheko Institute for Art Education (IAE) institutuko zuzendariak eta Elke Zobl-ek –Grrrl Zine Network plataformaren sortzaileak– parte hartuko dute, besteak beste, hilaren 10ean eta 11n Bilboko Rekalde aretoan egingo den *Hemen eta orain! Ekintza feministaren molde berriak* izeneko zikloan.

Oscar Molina argazkilaria eta diseinatzaile espainiarren irudiz osatutako erakusketa paratu dute Iruñeko Urrobi kaleko Contraluz galerian. Hilaren amaiera arte izango da ikusgai.



Emilio Sagiren zuzendaritzapean, Bilboko Arriaga Antzokiak Pablo Sorozabal konpositorearen *Katuska* zarzuela estreinatuko du irailaren 24an, 26an, 27an eta 29an. Sagik, Emilio Gonzalez del Castillok eta Manuel Martí Alonsok idatzitako jatorrizko libretoa egokitu du. Sobietar Iraultzaren aurreko Ukrainan kokaturiko istorioa kontatzen du, pasioa, zeloak eta traizioa uztartzen dituen istorioa.

Artixten Topaketak ekimenak munduko dantza, musika, antzerki eta bestelako kultur adierazpideak bilduko ditu Hernanin urrian, data oraindik zehaztu ez badute ere. Bigarrenez egingo da eta Urbieta kalean izango du bilgune. Topaketa hauetan edonork parte hartu ahal izango du. Izena eman nahi duenak 675703276 telefonora deitu edo ixa74@hotmail.com helbidera mezua igorri dezake.

Xabier Portugal Pasaiaiko alkate ohia eta kazetaria hil da

XABIER PORTUGAL ARTEAGA 1987 eta 1995 artean izan zen Pasaiaiko alkate, HB alderdiarekin. Pasaia-Lezo Lizeoko zuzendaria ere izan zen, eta hainbat hedabidetan egin zuen lan, zinema eta jazz kritikari bezala. *Zeruko Argia* eta ARGIA aldizkarietan eta *Euskal Kulturaren Urtekarian* ere urte luzez kolaboratu zuen, 1980ko hamarkada hasieratik iaz arte. Pasa den otsailean, bestalde, *Pasaia 1931-1939. Zanpatuen Oroimina* (Pasaiaiko Udala) liburua argitaratu zuen. Gaixotasun baten ondorioz hil da Portugal.



Richard Eyreeren “The Other Man” filmak zabalduko du Zinemaldia

ANTONIO BANDERAS, Liam Neeson, Laura Linney eta Romola Garai dira Richard Eyre ingelesaren *The Other Man* filmeko protagonistak. Hark emango dio hasiera Donostiako Zinemaldiaren 56. edizioari hilaren 18an. Eta Rian Johnson estatubatuararen *The Brothers Bloom* filmak itxiko du 27an. Adrien Brody eta Rachel Weisz dira pelikula horretako aktore nagusiak. Bestalde, Zabaltegiaren inaugurazioan Penelope Cruz eta Woody Allen izango direla adierazi dute antolatzaileek. Baita Urrezko Maskorra irabazteko hautagaien artean zuzendari ezagunak daudela: Michael Winterbottom britainiarra, Daniel Burman argentinarra, Courtney Hunt amerikarra eta Kim Ki-duk hegokorearra, besteak beste.

[Isabel Diaz Morlan musikologoak Euskonews & Media web gunean:](#) «Donostiako kontserbatorio berria egin dadin amorratzen gaude; oso beharrezkoa da, eta laster ikusiko ahal dugu! Badakit kontserbatorio bat diseinatzea oso korapilatsua dela. Une honetan, zentro ugarritan sakabanatuta gaude, eta horrek izugarri zailtzen du antolaketa, ikasleak bizikletan batetik bestera dabilza beti, gu ahal bezala moldatzen gara, eta ordutegiak eratzen dituenak gorriak ikusi behar izaten ditu».

[Matxalen Garmendia EHuko irakasleak Gaur8 aldizkarian:](#) «Telefono mugikorraren antzeko erabilera egiten dute [gazteek]. Mezuak bidaltzen dizkiote elkarri; musika, jokoak eta halakoak trukatzeko dituzte... messengerra-

rekin ez daukate saldoaren mugarik eta komunikatzeko modu azkarra eta zuzena da. Kaltetu baino, lagunen arteko harremanak indartu egiten ditu messengerrak, etengabe harremanetan egoteko modua eskaintzen baitie (...) Telebistak bezalaxe, Internetek ere denbora tarte hilak betetzen ditu. Hori da bere egiteko nagusia».

[Paxkal Indo musikariak txalapartari buruz, Gara egunkarian:](#) «Guk berez askea den musika dugu, nire ustez txalaparta musika bat delako eta ez musika-tresna bat. Idatziz ematen hasi dira eta horrek mugatzen du nolabait. Ahoz aho transmititu izan da, aktibotik aktibora eta, hola jarraituz gero, norberak bere ekarpena gehitu ahal dio»